



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 31

11. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Zirkuituaren errentamenduari buruzko fiskalizazio-txostena (2014-2019), Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Zirkuituaren errentamenduari buruzko fiskalizazio-txostena (2014-2019), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 24an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Zirkuituaren errentamenduari buruzko fiskalizazio-txostena (2014-2019) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Zirkuituaren errentamenduari buruzko fiskalizazio-txostenaren (2014-2019) edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea. (10-20/CCO-00025).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Zirkuituaren errentamenduari buruzko fiskalizazio-txostena (2014-2019), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nafarroako Zirkuitua (4. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (5. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (6. or.).
 - IV.1. Nafarroako Zirkuitua errentan emateko 2014ko eta 2019ko prozeduren berrikuspena (7. or.).
 - IV.2. Nafarroako Zirkuituaren 2014ko errentamendu kontratua betetzeari buruzko berrikuspena (10. or.).
 - IV.3. Amaierako konklusioa eta gomendioak (11. or.).

I. SARRERA

2010eko ekainean, Parlamentuak eskaturik, Kontuen Ganberak txostena egin zuen Los Arcosko Abiadura Zirkuituari buruz. Bertan aztertu zituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egindako jarduketa eta administrazio horrek Nafarroako Inbertsioak eta Azpiegiturak Sustatzeko Sozietatea (SPRIN) enpresa publikoaren bidez egindakoa; zehazki, honako hauek aztertu zituen ganbera honek: eragiketaren balio ekonomikoa (proiektuaren kostua eta bideragarritasuna), jarduketaren lege alderdiak —taratean, obren adjudikazioa eta UPSaren ingurukoak— eta eraikitzaileak lortutako mozkina.

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urriaren 19ko bilkuran, erabaki zuen legebiltzarrari txostena eskatzea gai honi buruz: “*Nafarroako Zirkuituaren errentamendu prozesuen fiskalizazioa (2014 eta 2019)*”.

Lan hori 2020ko fiskalizazio-programan sartu zen. Auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenen Nafarroako Zirkuituaren (hemendik aurrera, NZ) alderdi orokorrak eta 2014tik 2019ra bitarteko errentamenduarenak azaltzen dira; hirugarrenak lanaren helburuak eta norainokoa biltzen ditu, eta laugarrenak ateratako konklusioak eta gomendioak azaltzen ditu.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakolari jarraituz, lan honen emaitzak erakutsi zitzaizkien Kultura eta Kiroleko kontseilariari, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLUko zuzendari nagusiari eta Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio enpresako zuzendari kudeatzaileari, alegazioak egin zitzen.

Kontuen Ganberak ezarritako epean ez da alegaziorik aurkeztu. Beraz, epea iraganik, txosten hau behin betikoa bilakatu da.

Eskerrak ematen dizkiegu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLU (hemendik aurrera, NEKP) enpresako langileei eta Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio (hemendik aurrera, NICDO) enpresakoei, lan hau egiteko emandako laguntzagatik.

II. NAFARROAKO ZIRKUITUA

NZren ekimena hasiera batean sektore pribatuan sortu zen, kapitalaren ehuneko 55 sektore pribatukoa eta gainerako ehuneko 45 NFKArena zuen proiektu batean. Gerora, inbertsioak aurrera egin ahala, alderdi pribatuak kapital ekarpenik egiten ez zuenez, azkenean NFKAk bere gain hartu zuen inbertsioa, halako moldez non beraren ekarpenak guztizkoaren ehuneko 95era iritsi ziren eta alderdi pribatuarenak ehuneko 5era murriztu.

Horri dagokionez, ganbera honek kritika egin zion Nafarroako Gobernuak SPRIN enpresa publikoaren bitartez egindako eragiketa horri. 2010eko txosten batean egin zuen kritika, esanez ez zegoela inongo dokumenturik inbertitzaile pribatu batekin proiektuan parte hartzeko erabakia azaltzen zuenik. Egiaztatu genuen aurrez zehaztu gabeko proiektua zela, gerora proiektuaren tamainan egin diren aldaketek erakutsi dutenez. Eta azpimarratu egin genuen honelako inbertsioak beti jaso behar direla agiri egokietan, helburuak, betetze maila neurtzeko adierazleak eta bideragarritasun plana barnean hartuta.

Los Arcosen kokatutako Nafarroako Zirkuitua, azkenik, motorrean espezializatutako aisia eta kirol eremu bilakatu zen eta 2010eko ekainean inauguratu zen, 55 milioiko kostuarekin¹; haren instalazioak prestatu daude bai ekitaldi korporatiboak bai aisiakoak hartzeko. Bost pista espezi-fiko ditu: abiadura-zirkuitua, karting zirkuitua, autocross pista, pista irristakorra eta 4x4 gunea.

NZren jabea NICDO sozietate publikoa da, eta NEKP da sozietate horretako bazkide bakarra. Circuito Los Arcos SL sozietate publikoak kudeatu zuen azpiegitura; Nafarroako enpresa sektore publikoaren 2011ko berregituratze prozesuaren ondoren Navarra Deporte y Ocio SL izena hartu zuen, eta geroago NICDO izena. 2013an, azpiegitura errentan emateko aukera planteatu zen, bost milioiko ustiapen-defizit metatua zuela eta.

Hala, 2013ko urrian, NEKPk hautagaiak aukeratzeko prozesua abiarazi zuen Nafarroako Zirkuitua errentan emateko, salerosteko aukera loteslearekin eta lehentasunez erosteko eskubidearekin.

2014ko otsailean NICDOk errentamendu kontratua egin zuen Los Arcos Motosport SLrekin eta haren bazkideekin. Kontratuan sartu ziren bai instalazioak eta bai merkataritza- eta jarduera-funtsa ere.

2018ko azaroan, lehengo errentamendu kontratua amaitzear zegoela, bi alderdiek 2019rako luzapena negoziatu zuten.

2019ra arte enpresa errentariak ordaindu egiten zuen alokairuagatik adostutako diru kopurua, noizbehinka atzeratzen bazen ere. Baina enpresak ez zuen ordaindu 2019ko bigarren hiru hilekoko alokairua.

2019ko uztailean hautagaiak aukeratzeko beste prozesu bat egin zen, Nafarroako Zirkuitua errentan emateko, salerosketa-aukerarekin. Prozesu horren ondoren 2020-2024 aldirako kontratua sinatu zen, eta bertan ezarri zen enpresa errentariak gutxienez 500.000 euroko funts berekiak eduki behar zituela Nafarroako Zirkuitua kudeatzen jarraitu ahal izateko.

2019ko azaroan, ikusirik ezin zuela bete 2020ko urtarrilean indarrean jartzekoa zen kontratuan ezarritako betebeharra, hau da, ezin zituela eduki funts bereki horiek, enpresak eskatu zuen uztailean sinatutako errentamendu kontratua suntsiarazteko, eta NICDOk eskaera onartu zion.

Hala, instalazioen egoera baloratzeko zenbait txosten kontuan harturik, eta txosten honetako IV.2 atalean xehetasunez azaltzen diren ez-ordaintzeen segida baten ondorioz, enpresak jarritako milioi bateko abalari heldu zitzaion eta guztira 720.467 euro exekutatu ziren abal horretatik.

¹ Zenbateko hori ageri da NEKP egindako errentamenduaren balorazio ekonomikoari buruzko txostenean, eta honela osatzen da: 20 milioi kapitalean eta 35 milioi mailegu batean.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Parlamentutik jasotako eskaera kontuan hartuta, honako hauek izan dira lan honen helburuak:

- Nafarroako Zirkuitua errentan emateko 2014an eta 2019an egindako prozesuak berrikustea.
- 2014ko errentamendu kontratuan ezarritako klausulak zenbateraino bete diren ebaluatzea.

Gure lanaren denbora-esparruak 2014an errentamendua egin zenetik honako txosten hau egin den egunera arteko aldia hartzen du, eta lan hori aurrera eramateko informazio hau aztertu dugu:

- 2014an eta 2019an egindako errentamendu prozesuak.
- Berrikusitako errentamendu espedienteetako agiriak: akta, kontratu, faktura eta abarrekoak.

Gure lanaren norainokoa mugatu ez badu ere, honako hau adierazi behar dugu: zenbait klausula betetzeari buruzko konklusioak ateratzeko, eman diguten dokumentazio teknikoa aztertu dugu, baina ez dugu egin egiaztapen sakonagorik.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna

Nafarroako Zirkuituaren kudeaketaren arduraduna NICDO da. Berak bermatu behar du kudeaketa horrekin zerikusia duten jarduerak bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezarri behar ditu kudeaketa hori egokiro egin dadin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure arduraren da gure fiskalizazioan oinarritutako konklusioak ateratzea Nafarroako Zirkuitua errentan emateko 2014ko eta 2019ko prozesuei buruz, 2014ko errentamendu kontratuan ezarritako klausulak betetzeari buruz eta Nafarroako Zirkuituaren egungo kudeaketari buruz.

Horretarako, aipatutako fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioak erabiliz; zehazki, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-etarako ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoak. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta auditoretza planifikatu eta gauzatu dezagula ere, halako moduz non lortuko baitugu Nafarroako Zirkuituaren kudeaketan erabilitako prozeduren ezagutza egokia, bai eta informazioa oker materialik gabekoa izateari buruz arrazoizko segurtasun bat izatea ere, alderdi adierazgarri guztietan, indarreko araudiarekin bat.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, kudeaketan erabilitako prozedurei buruzko eta fiskalizatutako ekitaldietan araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak betetzeari buruzko auditoretza-ebidentzia lortzeko.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, barne dela akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuaren balorazio horiek egitean, auditoreak kontuan hartzen du aztertutako kudeaketarako garrantzitsua den barne-kontrola, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du Nafarroako Zirkuituaren kudeaketaren gaineko konklusioa atera ahal izateko.

IV.1. NAFARROAKO ZIRKUITUA ERRENTAN EMATEKO 2014KO ETA 2019KO PROZEDUREN BERRIKUSPENA

IV.1.1. Nafarroako Zirkuituaren 2014ko errentamendua

Arestian azalduenez, 2013ko urrian NEKPk hautagaiak aukeratzeko prozesua abiarazi zuen Nafarroako Zirkuitua errentan emateko, salerosteko aukera loteslearekin eta lehentasunez erosteko eskubidearekin.

Badago eragiketa horren alderdi ekonomikoei eta haren balorazioari buruzko txosten bat. Bertan puntu hauek aztertu ziren:

- Errentamendu eragiketak NEKPk izan zezakeen eragina, kudeaketa berekiaren ereduarekin jarraitzeko aukerarekin alderatuta: txostenean ondorioztatzen da ezen, kontuan harturik NEKPk zorraren eta interesen itzulketari aurre egin behar ziola edozein izanda ere Nafarroako Zirkuitua kudeatzeko eredu, errentamendu eragiketa gauzatzen bazen sozietate horrek 5,4 milioiko superabita izanen zuela 2014-2018 aldirian; eta, orduko ustiapen ereduarekin jarraituz gero, 4,3 milioi inguruko galerak izanen zituela bitarte berean.

- Nafarroako Zirkuitua 15 milioiren truke saltzeak izan zezakeen eraginaren azterketan konklusio hauek atera ziren, besteak beste:

a) Gutxi gorabeherako emaitza garbia izanen zen 52,8 milioiko funtsak ateratzea, honela kalkulatuta:

- Gastuak: 69 milioi guztira, hau da, 55 milioiko inbertsioa Nafarroako Zirkuituan, bost milioiko ustiapen-defizita eta bederatzi milioiko interes-ordainketa.

- Sarrerak: 16,2 milioi guztira, hau da, 1,2 milioi errentamenduaren bidez eta 15 milioi salmentaren bidez.

b) Zenbateko horrek ez zuen barnean hartzen Nafarroako Zirkuituak Nafarroan izanen zuen eragin ekonomikoa: milioi bat urtean, 2010-2013 aldiko emaitzak 2014-2018 aldira estrapolatuta.

c) Zenbateko horrekin itzuli egin zitekeen 2018ko abenduaren 31n ordaintzeko egonen zen zorra, 14,8 milioikoa.

Bi konklusioak ikusirik, eta kontuan izanik aldagai batzuen zenbatespenak eginez iritsi zela konklusio horietara (errentamenduaren bidezko diru-sarrerak, errentariaren emaitzaren eboluzioari lotuak; kontratuari lotutako kostuak; Nafarroako Zirkuituak Nafarroan izan zezakeen eragin ekonomikoa, eta abar), errentamendu eragiketaren balorazio positiboa egin zen.

Azterketa horren ondoren, NEKPk hautagaiak biltzeko publizitatea egin zuen Kontratazioaren Atarian. Aukeraketa prozesu horretatik ez zen inolako kontratu motarik sortuko, ezta inolako esku-biderik ere, aukeratuko ziren hautagaien zatitza; hautagai onenak berdintasunez, gardentasunez eta objektibotasunez aukeratzea beste helbururik ez zuen.

Lau hautagai aurkeztu ziren eta haietatik bi aukeratu ziren. Badago hautagaien aukeraketari buruzko txosten bat. NEKPk bi hautagairekin jarri zuen abian term sheet edo kontratuaren negoziazioan bete beharreko gutxieneko baldintzen agiriaren jakinarazpena. Ondoren eskaintzak aurkeztu ziren, eta badago horien gaineko ebaluazio-txosten bat.

Fase hori amaituta, eskaintza irmo bakarra aurkeztu zen, instalazioa hiru-bost urte bitarterako errentan hartzeko, salerosketarako aukera loteslearekin hirugarren urtetik aurrera, eta lehentasunez erosteko eskubidearekin hirugarrenen erosteta-errenta aldean.

2013ko abenduan aurrekontratu egin zen eskaintza irmoa aurkeztu zuen enpresarekin. 2014ko otsailean NICDOk errentamendu kontratu egin zuen. Kontratuan sartu ziren bai instalazioak eta bai merkataritza- eta jarduera-funtsa ere. Enpresa errentariak, ezarritako gutxieneko baldintzak hobetzeko proposamenean, abal gisa eskatzen ziren 500.000 euroen ordez milioi bat jartzea eskaini zuen.

Kontratuan 36 klausula jaso ziren, hainbat gairi buruzkoak. Honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Enpresa errentariak zuzenean eta bere kudeaketaren arrisku eta menturara ustiatuko du Nafarroako Zirkuitua. NICDOK ez du inolako erantzukizunik bere gain hartu beharko, kontratuan zer-bait berariaz aurreikusi ezean.

- Kontratuan berariaz aurreikusten ez diren gaitan Kode Zibileko xedapenak aplikatuko dira.

- 2014an errenta 150.000 eurokoa izanen da, 2015ean 250.000 eurokoa eta hirugarren, laugarren eta bosgarren urteetan 300.000 eurokoa. Zenbateko horiek handitu egingen dira baldin eta errentariaren EBITDAren ehuneko 20ak adierazitako zenbatekoak gainditzen baditu; halakoetan, aipatu finantza-adierazlearen ehuneko 20 izanen da errenta.

- Inguruabar hori egiaztatzeko, errentariak kontuak egingen ditu eta NICDORi igorriko dizkio beren auditoretza-txostenarekin batera.

- Zehaztu egiten da zein diren Nafarroako Zirkuituko hasierako inbertsioak, bai eta gerokoak ere, eta nork hartu behar dituen bere gain.

- Hori dela eta, batzorde teknikoa eratzea aurreikusten da. Lau pertsonak osatuko dute, NICDORen eta errentariaren bina ordezkari, hain zuzen, eta sei hilean behin bilduko da gutxienez, Nafarroako Zirkuituaren mantentze-lanak gainbegiratzeko, inbertsio eta obra berriak eta abarrekokoak identifikatzeko eta obren diseinuaren eta exekuzioaren jarraipen eta kontrolerako.

- Nafarroako Zirkuituko elementuen mantentze-lanak eta kontserbazioa errentariaren kontura izanen dira, eta errentamendu kontratuaren III. eranskinean ezarritako mantentze-plana bete beharko da. Batzorde teknikoak plan horretarako aholkuak eman ahalko ditu, baina errentariak ez ditu nahitaez onartu beharko.

- Errentariak langileen subrogaziorako konpromisoa hartzen du, eta ez du langile bakar bat ere kenduko kontratua sinatu eta hiru hilabete iragan arte. Halaber, konpromisoa hartzen du 2014an batez beste 15 langile edukitzeko gutxienez, eta 2015ean 19 gutxienez.

- Errentariak Nafarroako Zirkuituan egoki deritzen jarduerak egin ahalko dituela ezartzen da, eta, betiere, jarduera horiek ez diotela kalterik egin behar zirkuituaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen irudiari.

Horri dagokionez, Jarraipen eta Kontrol Batzordea eratzea aurreikusten da, lau kidek osatua, NICDOK izendatutako bik eta errentariak izendatutako beste bik, jarduerak, kontabilitate-kudeaketa eta zerga-kudeaketa gainbegiratzeko.

- Enpresa errentariak erosteko aukera izanen du, bi zenbateko hauetatik handienaren truke: erosteko aukera baliatzen duen eguneko EBITDA, behar bezala auditatua, bider zazpi; Nafarroako Zirkuituaren balorazioa, ustiapeneko kutxako fluxu libreen deskontuaren metodoaz kalkulatua, ehuneko zazpiko deskontu tasa aplikatuta; eta 15 milioi, hau da, aurretik egindako azterketaren emaitza, Nafarroako Zirkuitua eraikitze hartutako zorrari aurre egiteko erabili behar zena.

Erosteko aukera baliatzeko ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko irizpide horiek bat datoz enpresa publikoen mota honetako azpiegiturekin lotutako kontabilitate-irizpideekin eta zehaztapenekin. Erosteko aukera eta guzti Nafarroako Zirkuitua errentan hartzeko deialdi publikoaren esparruan, eta kontuan izanik erosteko aukeraren truke hautagaiak eskainitako prezioa, EBITDAri eta kutxako fluxuei lotutako parametro aldakorretan oinarritua, negoziatu egin zen klausula horren testua, zeinak finkatzen baitzuen aipatu parametroak aplikatuz kalkulaturako zenbatekoetatik handiena izanen zela erosteko aukeraren prezioa. Kalkulatutako zenbatekoa 15 milioitik beherakoa bazen, prezioa 15 milioi izanen zela ezarri zen, hartara errentamendu kontratuaren amaierako eguneko zorrari aurre egitea bermatuko baitzen.

IV.1.2. Nafarroako Zirkuituaren 2019ko errentamendua

2018ko azaroan, aurreko errentamendu kontratua amaitzear zela, bi alderdiek 2019rako luzapena negoziatu zuten aurreko baldintza berberetan ia, baina indarrrik gabe utzita aurreko kontratuko hiru klausula. Hain zuzen, klausula hauek: enpresak NZ erosteko aukera, NICDOK saltzeko aukera,

eta hirugarrenei saltzea. Gainera, aldatu egin zuten enpresa errentariaren ez-betetze penalari buruzko klausula, 500.000 euroko zenbatekoa ezarriz².

2019ko uztailean hautagaiak aukeratzeko beste prozesu bat egin zen, Nafarroako Zirkuitua errentan emateko, salerosketa-aukerarekin. Kontratu berria sinatu zen 2020-2024 aldirako, eta bertan ezarri zen enpresa errentariak gutxienez 500.000 euroko funts berekiak eduki behar zituela.

2019ra arte, enpresa errentariak noiz edo behin berandu ordaindu zuen alokairua, baina beti ordaindu zuen adostutako zenbatekoa. Baina enpresak ez zuen ordaindu urte horretako bigarren hiruhilekoko alokairua, guztira 76.500 euro.

Ez-ordaintzeen testuinguru horretan, eta gutxieneko funts berekiak edukitzeko betebeharra bete ezinda, 2019ko azaroan, enpresak uztailean sinatutako errentamendu kontratuaren suntsiarazpena eskatu zuen, 2020ko urtarriletik aurrera aplikatu beharrekoa, eta NICDOk onartu egin zion eskaera.

IV.1.3. Nafarroako Zirkuituaren errentamendua 2019an amaitu ondoren gertatutakoak

2019an errentamendu kontratua amaitu ondorengo gertaera batzuk azalduko ditugu, ganbera honen ustez nabarmendu beharrekoak baitira:

- Nafarroako Zirkuitua jabeari itzuli aurretik, enpresak inbentarioaren gaineko txostena egin behar zuen, ondasun eta eskubideen deskribapena eta egoera azaldu behar zituena. Testuinguru horretan, Jarraipen eta Kontrol Batzordearen 2019ko abenduko bileran NICDOk proposatu zuen norbait kontratatzea txosten hori egin zezan, eta beste txosten bat ere bai, langileen egoera, hornitzaileena, merkataritza funtsaren balorazioa eta errentariaren jabetzako ondasun higigarrien inbentarioa aztertu behar zituena. Enpresa errentaria ados agertu zen.

Hala, bada, 2019ko abenduan NICDOk auditoretza enpresa bat kontratatu zuen, alde aurretik enpresa errentariarekin ados jarrita, balorazio hori egin zezan 9.700 euroko prezioan (BEZa kontuan hartu gabe).

- 2019ko abenduan, berriro ere enpresak ez zuen ordaindu hirugarren hiruhilekoko errentamenduaren faktura, 76.500 euro, eta NICDOk lehen aldiz abala exekutatu zuen ordaindu gabekoak estaltzeko. Hori dela eta, aipatu behar dugu enpresak ordaindu gabe utzi zuela 2019ko azken hiruhilekoko errentamenduaren faktura ere, adierazitako zenbatekoa zuena.

- Auditoretza enpresak balorazio txostena aurkeztu zuen 2020ko otsailean. Bertan kalkulatu zuen 487.769 euroko gastuak egotzi ahal zitzaizkiola enpresa errentariari (BEZa kontuan hartu gabe).

- Enpresa errentariak balorazioen gaineko zenbait ohar egin zizkion NICDOri eta ondorioz 19.230 euro gutxiagotan baloratu ziren enpresari egotzi beharreko gastuak; gainera, ez zegoen ados merkataritza funtsaren balorazioarekin, zeren eta, auditoretza enpresaren txostenaren arabera, 2014an kontratua hasi zenean izandakoa baino txikiagoa baitzen.

- 2020ko uztailean NICDOk berriz exekutatu zuen abala enpresak ordaindu gabe utzitakoak estaltzeko, enpresari egotzi ahal zitzaizkion gastuak barne, behin deskontatuta enpresak alegatutako 19.230 euroko zenbatekoa.

- Desadostasunak ikusita —zeinak, funtsean, instalazioaren egoeraren balorazioaren inguruak baitziren (ondasun eta eskubideen inbentarioa eta haien egoera)—, 2020ko urrian NICDO eta enpresa errentaria akordio honetara iritsi ziren: Ingeniarien Elkargoak bi peritu izendatuko zituen instalazioaren egoera baloratzeko peritu-lana eskaini zezaten, balorazio hori loteslea izanzen zen bi alderdientzat eta jarduketara horren kostua erdi bana ordainduko zuten.

- 2021eko urtarrilean, kontratatutako perituak behin betiko txostena eman zuen, eta bertan, instalazioaren egoera zela eta, 240.176 eurotan baloratu zuen enpresaren erantzukizuna BEZa kontuan hartu gabe. Auditoretza enpresak, berriz, 468.539 euroko balorazioa egina zuen, BEZa

² Abala aldatzea ere proposatu zen, milioi bat euroren ordez 500.000 euroko abala jartzea, hain zuzen; azkenean ez zen abalaren aldaketa hori gauzatu, eta hasieran ezarritako milioi euroko abalari eutsi zitzaion.

kontuan hartu gabe eta enpresa errentariak alegatutako zenbatekoa deskontatu eta gero. Alde horren arrazoi nagusia da perituak zenbait gasturen erantzuleztat NICDO jo zuela eta ez enpresa.

- 2021eko otsailean, NICDOk aldea itzuli zion bankuari, alegia, lehenbiziko txosteneko balorazioa, jada abaletik exekutatu zena (468.539 euro), ken bigarren txosteneko 240.176 euroko balorazioa (BEZa kontuan hartu gabe kalkulatu). NICDOk itzulketa horretarako akordioa sinatu zuen enpresa errentariarekin, 2021eko otsailean bertan.

- Kontuan izanik enpresa errentariak Nafarroako Foru Ogasunari zor zizkion zenbatekoak (ordaindu gabeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga) eta enpresa errentariak bazkideei igorritako kuotetan kobratutako aurrerakinak, abaletik 720.467 euroko zenbatekoa exekutatu zen guztira, honela xehakaturata:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Ordaindu gabeko hiru hiruhilekotako errenta, errentariak egindako obren fakturak kenduta	161.008
Iberdrolari ordaindu beharrekoak	18.797
Errentariak kobratutako aurrerakinak: bazkideei igorritako kuotak eta 2019ko laugarren hiruhilekotako errenta	138.370
Konponketen kostua	240.176
Nafarroako Foru Ogasunarekiko zorrak	128.125
Los Arcosko Udalarekiko zorrak	33.990
Guztira	720.467

IV.2. NAFARROAKO ZIRKUITUAREN 2014KO ERRENTAMENDU KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO BERRIKUSPENA

2014an egindako errentamendu kontratuak 36 klausula zituen hainbat alderdiri buruzkoak, eta horietatik 20 ebaluatu ahal dira. Gainerakoak kontratuko atal deskribatzaileei buruzkoak dira, eta ez dira berrikusteko modukoak. Zehazki honako hauek dira berrikusitako klausulak eta horien betetze maila:

Klausula	Deskribapena	Betetze maila
3	NZren edukia eta balorazioa; instalazioak, ondasun inbentariagarriak eta inbentariaezinak, merkataritza funtsa, etab.	Neurri batean beteta
4	Kontratuaren iraupena	Beteta
5	Errentamenduaren errenta: zenbatekoa, BEZa, ordainketak, etab.	Neurri batean beteta
6	Inbertsioak NZn, obra berriak eta Batzorde Teknikoa	Beteta
7	NZ mantentzea	Bete gabe
8	NZko langileak	Neurri batean beteta
9	Lan arloko eta legezko betebeharrak eta Gizarte Segurantzza	Beteta
11	Kontrolerako eskubidea, Kontrol eta Jarraipen Batzordea	Beteta
13	Errentariaren urteko kontuak eta auditoriak	Bete gabe
14	Markak, jabetza intelektuala eta industrialak	Beteta
15	NZ ustiatzeko lizentziak	Beteta
16	Kirol homologazioa	Beteta
17	Azpierrentamendua	Beteta
18	NICDOk NZren edukitza berreskuratzea	Beteta
19	Lege aldaketak kontratuaren indarraldian	Beteta
20	NZren ustiapenarekin lotutako aseguruak	Beteta
21	NZren ustiapenarekin lotutako zergak eta tasak	Bete gabe
22	Enpresa errentariaren betebeharrak	Neurri batean beteta
25	NZn egitekoak ziren probak	Beteta
30	Kontratua betetzea bermatzeko abala	Beteta

Aurreko taula aztertuta ondorioztatu ahal dugu 13 klausula bete egin zirela, lau klausula neurri batean bete zirela, eta gainerako hirurak ez zirela bete. Jarraian xehetasunez azalduko ditugu betetze partzial eta ez-betetze horiek.

- Hirugarren klausula ez da bete, ez zelako egin 2. kategorian sailkatutako ondasunen balorazio ekonomikoa horretarako ezarritako epean; azkenean balorazio hori egin zen, baina enpresa errentariak NICDORi egin behar zizkion ordainketak atzerapenarekin egin ziren.

- Bosgarren klausula neurri batean bete da. Izan ere, enpresa errentariak beti ordaindu du errenta goiz edo berandu, baina 33 aldietatik 26tan berandu ordaindu du, ezarritako epeetatik kanpo.

- Zazpigarren klausulari dagokionez, esan behar dugu urteko mantentze-plan bat adostu zela eta Batzorde Teknikoak enpresa errentariaren betetze mailaren balorazioa egin zuela 2015ean eta 2016an.

2017an, 2018an eta 2019an ez da inon ageri Batzorde Teknikoak ontzat eman zuenik planaren betetze maila.

2017rako planaren kasuan, ez daude jasorik zenbait alderdiri buruzko ziurtagiriak, besteak beste konpresoreei eta klimatizazioari buruzkoak. 2018ko planari dagokionez, ez dago jasorik teknika- eta lege-alderdien berrikuspenei buruzko ziurtagiririk. 2019ko planari dagokionez, ez dago jasorik berrikuspenaren eta mantentze-lanen teknika- eta lege-alderdien ziurtagiririk.

Laburbilduz, 2017tik aurrera arazoak azaldu ziren enpresa errentariak mantentze-betebeharrak betetzearen inguruan, eta ondorioz Batzorde Teknikoak ez zuen ontzat eman 2017-2019 aldirako mantentze-planaren exekuzioa.

- Zortzigarren klausulak Nafarroako Zirkuituko langileen alde subrogatu beharra ezartzen zuen, eta baldintza berberetan subrogatu ere, baina aurreikusten zuen enpresa errentariak plantilla bere premietara egokitu ahalko zuela, betiere 15 langileko plantillari eutsiz 2014an eta 19koari 2015ean, batez beste. Subrogazioa behar bezala egin zen, baina adierazitako urteetako batez besteko plantilla aurreikusitakoa baino txikiagoa izan zen kontu-auditoretzako txostenean jasotako datuen arabera: 14 langile 2014an eta 16 langile 2015ean.

- Hamahirugarren klausulak ezartzen zuen enpresa errentariak bere urteko kontuak egin behar zituela ekitaldia amaitu eta hiru hilabeteko epean, eta batzar orokorrak ekitaldia itxi eta sei hilabeteko epean onetsi behar zituela.

2016ko, 2017ko eta 2018ko kontuak atzeratuta aurkeztu ziren, eta 2019koak aurkeztu ere ez ziren egin; kontuen auditoriari dagokionez, ez zen halakorik egin 2018ko eta 2019ko ekitaldiatarako.

- Hogeita batgarren klausulak enpresa errentariaren zerga-ordainketa arautzen zuen. Gorago esan dugun moduan, enpresa errentariak ez zituen bete zerga-betebeharrak. Nolanahi ere, abala exekutatzuz egin zaie aurre ordaindu gabeko zerga horiei.

- Hogeita bigarren klausulak enpresa errentariaren betebeharrak ezartzen zituen, hemen aztertutako batzuk tartean: instalazioak mantendu eta zaintzea, auditoretza-txostenak egitea, sei hilean behin finantza-egoeren orriak aurkeztea, eta abar. Aurreko puntuetan azaldutako azterketa kontuan izanda, klausula hau neurri batean baino ez da bete, enpresak ez dielako egokiro aurre egin bere betebeharrak guztiei.

IV.3. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

Nafarroako Zirkuitua 2010ean inauguratu zen, bai ekitaldi korporatiboak bai aisiakoak sortzeko eta hartzeko azpiegitura gisa, eta 55 milioiko kostua izan zuen. Jabea NICDO da. NICDOK kudeatu zuen azpiegitura 2013ra arte. Orduan Nafarroako Zirkuitua errentan emateko aukera aztertu zen, bost milioiko ustiapen-defizit metatua izan eta gero.

Errentamenduaren aurretik txostenak egin ziren aukera onenak aztertzeko, eta ondorioztatu zen Nafarroako Zirkuitua errentan ematea zela kudeaketa-aukerarik onena.

Errentamendu prozeduran publizitatearen eta lehiaren printzipioak bete ziren, eta 2014an egin zen Nafarroako Zirkuitua errentan emateko lehenbiziko kontratua, 2014-2018 aldirako. Kontratua nola betetzen zen kontrolatu zen bi batzorderen bidez, eta horrela agerian jarri ziren kontratuko

klausula garrantzitsu batzuen ez-betetzeak, hala nola instalazioak mantentzeari buruzko klausularena. Gerora 720.467 euroko zenbatekoa exekutatu da abaletik, inguruabar horiei eta enpresak bete ez dituen gainerako betebeharrei aurre egin ahal izateko.

2018an kontratuaren luzapena egin zen 2019rako, eta 2019ko uztailean kontratu berri bat sinatu zen 2020-2024 aldirako. Enpresak ordainketetan eta txosten honek deskribatutako gainerako betebeharretan huts egitearen ondorioz, abala exekutatu egin zen, aditu independenteek egindako balorazio txostenak aintzat hartuta.

2020tik aurrera, errentamendu kontratua amaitu ondoren, NICDOk bere gain hartu zuen Nafarroako Zirkuituaren zuzeneko kudeaketa. 2020an kudeaketa horri lotutako gastuak 2,40 milioikoak izan ziren eta sarrerak 0,68 milioikoak, eta batez besteko plantilla bederatzi langilekoa; dena dela, COVID-19aren pandemiak eragina izan zuen adierazle horietan.

Azken batean, ondorioztatu ahal dugu NICDOk zentzuzko eran gauzatu zituela Nafarroako Zirkuitua errentan emateko prozedurak, bere buruaren defentsan jardun zuela horretarako sortutako batzordeen bidez, gero abala exekutatu egin zuela enpresa errentariak bete gabeko betebeharretatik, eta hori guztia azpiegiturako jardueraren jarraitutasuna zainduta eta bermatuta egin zuela.

Gure gomendioak:

- *Aztertzea zein izanen den kudeaketa-aukera merkeen, eraginkorren eta efizienteena behin azpiegitura honetako ohiko jardueraren erritmoa berreskuratzen denean.*
- *Inbertsioak egiteko erabakiak hartu aurretik azterketa zorrotz eta sakonak egitea, bereziki inbertsioak halako munta bat duenean.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 13an
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga